

Udaberria iritsi da Donostikluba zirkuitura

Apirila eta uztaila bitartean Elkano Browning Cream, Jay Jay Johanson, Bart Davenport edota Maika Makowski izango dira hirian

Nerea Lizarralde

Altzerri, Be Bop, Gazteszena, Bukowski, Victoria Eugenia Klub aretoa, Leize Gorria, Komplot, Lugaritz kultur etxea... Hiria musikaz blai izango da udaberrian. Donostikluba makina bat kontzertu antolatutako dituzten hilabeteetarako.

Thomas Belhomen zuzeneko arekin hasiko da udaberriko zirkuitua, apirilaren lehen. Inezenez ezezaguna izan daiteke, baina eskarmentu handiko musikaria da. Belhom Tindersticks taldeko bateria jolea da, eta baita Arizonako Calexico bandaren ohiko kolaboratzailea ere. Hurrengo egunean Elkano Browning Cream hirukoteak Bukowskin joko ditu bigarren diskoko kantak. Mikel Azpiroz bere Hammond organoarekin izango da Franck Mantegari bateria jolea eta Matt Harding abeslariarekin batera.

Apirilaren 14an, Pajaro Sunrise ezizenarekin joko du Leongo Yuri Mendez musikariak da Altzerri. Emanaldi berean, Donostiako Siete C talde donostiarra Raizdx taldeko kide ohiek osatu dute bere kanta berriak aurkeztuko ditu.

Gazteszenan Jay Jay Johanson konpositore suediarra izango da, eta Kontadoren, maiztaren 6an, Tom Waitzen laguntza izan duen Bart Davenport musikaria. *Maroon Cocoon* hirugarren diskoa aurkeztuta dator.

Rapa eta hip hopa ZPUrekin, AEBetako rock n' rolla Jhonny Kaplanekin. Andaluziako rocka eta funkaren arteko fusioa Pony Bravo Sevillako taldearekin,

soula eta musika beltza Beltza Recordsek antolatutako Soul Supreme festekin... Musika koktel ederren prestatu dute. Ekainaren 18an, gainera, Musikaren Eguna ospatuko dute kale ikuskizun handi batekin.

Joan den hilabetean Le Bukowski kluba eta zuzeneko emaldiaren inguruan sortutako zalapartaren inguruan hitz egin du Patxi Presak Donostia Kulturako Kultur Ekintza unitateko arduradunak: «Arazo oso puntua izan zen. Bizilagunen eta lokalaren arteko arazoa izan zen, Udalarena baino. Edonola ere, gure aldetik behintzat, dena konpontuta dago».

1999. urtetik, eraberritzen

Donostikluba programaren historian atzera egiten badugu, 1999. urteraino itzuli behar gara. Orduan sortu zen egungo musika zirkuitua eta jaialdiaren hasia. Elektronika izenarekin jaio zen. Musika elektronikoarekin lotutako askotariko proposamenak jasotzen zituen jaialdi gisa hasi zen. 2005ean hartu zuen Donostikluba izena. Elektronika baino gehiago eskaintzen hasi zen jaialdia, eta hamaika estilutako musikazaleak erakartzen hasi zen. Hiru urteren ondoren, urrian ez ezik, urte osoan ere kontzertuak antolatzea erabaki zuten antolatzaileek. Orduan sortu zen Donostikluba zirkuitua.

Ekimen honen bilakaerak ez du etenik izan. Udal Gazteria Sailak eta Donostia Kulturak hiriko kultur eragile eta musika areto pribatuak harremanetan jarri,



Bart Davenportek hirugarren diskoko kantak ekarriko ditu. DONOSTIA KULTURA



Elkano Browning Cream Bukowskin izango da apirilaren 2an. JON CAZENAIVE



Siete C musika taldeak aurkezpen kontzertua egingo du Altzerri. MAKOKI

zirkuitu zabalagoa lortu zuen. Iaz, gainera, babesle bat lortu zuen, San Miguel garagardoa, eta bultzada ekonomiko handia izan zen. Formatuz ere aldatu zuen berriz ere. Hiru hilabeteko programazioak osatzen hasi zen. Udazkena eta neguko egitarauen ondoren, udaberrikoa iritsi da orain. Antolatzaileak po-

zik daude, ikusleen harrera ona izan delako: «Udazkeneko egitarauan 4.400 lagunek parte hartu zuten, eta negukoan 2.500 lagunetik gora», adierazi du Presak. Uztailaren oporretan joango da Donostikluba, eta irailean itzuliko da maleta musika proposamenez beteta.

●nlizarralde@hitza.info

↓ Musika

UDABERRIKO DONOSTIKLUBA ZIRKUITUA

- **Apirilak 1.** Thomas Belhom (Be Bop taberna, 00:00). Sarrera: 10 euro.
- **Apirilak 2.** Elkano Browning Cream (Bukowski, 21:00). Sarrera: 10 euro.
- **Apirilak 2.** Gabon Japon (Guardetxea, 20:00). Sarrera: 6 euro.
- **Apirilak 14.** Pajaro Sunrise + Siete C (Altzerri, 22:00). Sarrera: 5 euro.
- **Apirilak 16.** Toy Box: opera new media (Ondarra, 21:00). Sarrera, doan.
- **Apirilak 29.** Jay Jay Johanson + Polaroid (Gazteszena, 20:30). Sarrera, 15 euro.
- **Maiatzak 6.** Bart Davenport + Napoka Iria (Kontadores, 21:00). Sarrera, 9 euro.
- **Maiatzak 7.** Gribitch Brothers & Sisters (Leize Gorria, 21:00). Sarrera, doan.
- **Maiatzak 12.** Maika Makowski + Ainara Legardon (Gazteszena, 20:00). Sarrera, 10 euro.
- **Maiatzak 20.** Pony Bravo (Lugaritz kultur etxea, 21:00). Sarrera, 11 euro.
- **Maiatzak 20.** Hidrogenesse + Los Nerviosos (Komplot, 22:00). Sarrera, 10 euro.
- **Ekainak 4.** Johnny Kaplan (Bukowski).
- **Ekainak 11.** ZPU (Larratxo kultur etxea, 20:00). Sarrera: Aldez aurretik, 12 euro. Egunean bertan, 15 euro.
- **Ekainak 17.** El hijo + Mal de muchos (Lugaritz kultur etxea, 21:00). Sarrera, 10 euro.
- **Ekainak 18.** Musikaren Eguna (Fnac, 20:00). Sarrera, doan.
- **Uztailak 1.** Soul Supreme (Victoria Eugenia Klub aretoa, 20:00).
- **Uztailak 2.** Soul Supreme (Gazteszena).

'Xereta' estreinatuko du Gero Axularrek

Antzoki Zaharrean egingo du ikuskizun berriaren aurkezpena, larunbatean eta igandean

Erredakzioa

2004. urtean Donostiako Axular ikastolako guraso batzuek Gero sortu zuten, euskal dantzaren urrats bat gehiago emateko as-

moz. Taldeak, kultura gorde eta zaindu ez ezik, landu eta bultzatzeko beharraz ohartu zen.

Orduz geroztik lau ikuskizun plazaratu ditu: *Sasi Artean*, *Lamien Basoa*, *Talaia* eta astebera honetan taularatuko duen *Xereta*. Lan hauetan «jantzi» berri bat eman nahi izan diote euskal dantza eta musikari. Horretarako, «dantzak gaurkotu egin ditugu; musikaz apaindu, argiaz margotu eta gaurko tresnez eta teknikaz hornitu. Ikuskizun era-

kargarri, moderno eta hunkigarriak eskaini ahal izan ditugu».

Haur, guraso, gazte zein helduen gustuko ikuskizunak direla diote. Jada zazpi bira egin dituzte lan hauekin: Frantzia, Belgika, Holanda, Italia, Portugal, Alemania edota Hungaria zehar ibili dira, besteak beste.

Xereta ikuskizunean Xereta bailaran bizi den artzain gazte baten istorioa kontatuko dute: errealitatearen eta ametsen munduaren arteko mugan gerta-



Xereta ikuskizuna. GERO AXULAR

tzen den abentura bat, Pirinioetan eta mendi inguru hartan bizi diren artzain, soldadu, sorgin eta mendietako beste pertsonaia batzuen bizipenak biltzen dituena: «Euskal dantza eta euskal musika ez ezik, artzain giroko istorio bat ere gozatu ahal izango da, ondo zaindutako soinu eta argiz jantzita».

Martxoak 26, larunbata, 20:00-etan eta martxoak 27, igandea, 18:00etan izango dira emanaldiak, Antzoki Zaharrean.